

Proiektuaren deskribapena

EDONOR(A), Gasteizko lau lagunek sortutako proiektua da, ingurugiroaren babesa eta gizartearen ongizatea sustatzen duena.

Gure egunerokotasunean inguratzen gaituzten arazoak aztertuta, arazo horiei konponbide bat aurkitzea helburua daukagu. Zerbitzu berritzailea, erakargarria, erabilerraza, eroso eta eskuragarria da adin guztiko pertsonentzat. Berrikuntza honek oinarritzat bizikletak ditu.

Gure txirriindulek, martxan jartzerakoan sortutako energia biltzen dute, eta hau, bizikleta berak eramango duen kutxatxo konplexu batean bildu egingo da. EDONOR(A) ekimenaren erabiltzaileek astean 10km-tik gora egitea da erronka, ahalik eta energia gehien pilatuz.

Modu honetan, helburuak jarri egiten dizkiegu gure bezeroei, bizikleta hartu eta lur planetari laguntzen ari diren bitartean kirola egiten dutelarik. Bezeroek, sortutako energia saldu eta Montes Solidarios izeneko elkarteari bideratu egingo dugu.

Gure taldearen izena EDONOR(A) da, eta edonor, edonora joan daitekeela adierazten du. Honekin lotuta dago Montes Solidarios elkarteari laguntzeko ideia, edonork duelako aukera mundua ezagutzeko eta kirola egiteak dakartzan onuretzat disfrutatzeko.

Gure proiektua ideia ona dela egiaztatzeko, honako abantailak aipa ditzakegu:

- Alde batetik, bizikleten kopurua sustatuko genuke; eta horrek gure ingurugiroa garbiago mantentzen lagunduko liguke.
- Horrez gain, bizikleta erabiltzeak, fisikoki eta mentalki osasuntsuagoak izatea dakar.
- Bestetik, gurekin lan egingo luketen enpresen eta instituzioen itxura hobetuko luke. Eta honekin batera tokiko ekonomia sustatzea bultzatuko genuke.
- Proiektu sozialen alde egitea, adibidez, euskararen eta Montes Solidarios elkartearen bultzaketa.